

Euskal Herriko akuario eta zoologikoetan animaliek bizi duten egoera salatu du Nor talde antiespezistak zentro, horietan egindako ikerketaren bidez. Animalien zaintza, espezieen kontserbazioa eta ingurumen hezkuntza «oinarri faltuak» direla diote; animaliak «objektu huts» direla han.

Betiko konfinaturik

Iker Tubia


Ematen du triste dagoela». «Buel-taka dabil, erotuko da!». «Hemen bakarrik gaizki pasatuko du».

Euskal Herriko zoologiko eta akuarioak bisitatzera joandako herritarren ahotatik bildutako hitzak dira denak. Nor talde antiespezistak ikerketa bat plazaratu berri du Euskal Herrian eta Kantabriar (Espainia) itxitako animaliak erakusten dituzten zentroetan bizi den egoera salatuz. Joan den udan bisitatu zituzten, animalien egoera bertatik bertara ezagutzeko. Zentro horien oinarria animalien zaintza, espezieen kontserbazioa eta ingurumen heziketa omen dira, baina Nor taldeak beste zerbaite aurkitu du: «Zapalkuntzaren logika ezkutatu nahi duten etiketak baino ez dira. Animaliak, etekin ekonomikoa lortzeko salgai hutsak dira».

Sendaviva (Arguedas, Nafarroa), Donostiako Aquariuma, Miarrizko Itsas Museoa (Lapurdi), Karpin (Karrantza, Bizkaia), Basondo (Kortezubi, Bizkaia) eta urtarrilean itxi zuten Getxoko akuarioa (Bizkaia) dira aztertutako zentroak, baina Cabarceno eta Santillana del Mar (Espainia) zentroetan ere izan dira, euskaldun asko joaten delako. Are, Santillana del Marren euskaraz dituzte esku orriak.

«Animaliak erakusleio bat dira». Maialen Sagues Nor taldeko bozeramaileak ikerketaren ondorioak aletu ditu. Esan duenez, ez dira betetzen zoologikoak eta akuarioak bere egiten dituzten funtzioak. Ingurumen hezkuntzarena, adibidez: zenbait ikerketen arabera, bisitariak 30 segundo ematen ditu, batez beste, animalia bakoitza ikusten. «Abiadura handiko emozioak dira: espezie pila bat ikusteko au-

ZOO ETA AKURIOETAKO ANIMALIA KOPURUA



*Getxoko akuarioa urtarrilean itxi zuten.

ITURRIA: NOR

keratu duzu, denak segidan, baina benetan ez diozu inolako arretarik eskaintzen gehiago ikasteari. 30 segundo horietan argazkia ateratu, eta ongi ateratzen denean, hurrengora pasatzen da».



Saltzen dute animaliak zaintzeko zentro direla, baina erdian ez dago zaintza, etekin ekonomikoa baizik»

Maialen Sagues
Nor talde antiespezistako bozeramaileak

«Konfinatutako animaliek ezin dute portaera naturalen arabera jokatu; hori oso negatiboa da haientzat»

Maidar Perez de Villarreal
Albaitaria eta etologian aditua

Ikerketan adierazten dutenez, kasu gehienetan ematen den informazioa «oso eskasa» da. Sendavivan kartelak «zaharrak» eta «zehaztasunik gabeak» dira; Karpinen ere kartel asko «zahar-

kituta» eta «hondatuta» daude. Ikasketa programen «zinismoa» ere salatu dute. Sendavivan, esaterako: arrautzen zikloa azaltzeko gune bat dago, txitak nola sortzen diren jakiteko. Adin ezberdineko txitak dituzte: jaioberriak, egun batekoak, bikoak... Azken kaioak zera dio: *Mundua ezagutzeko prest*. Langile batek kontatu zien txita horien benetako patua: «Anitz jaiotzen dira; berriz animaliei jateko ematen dizkiegu».

Nor taldeak «zuriketa» leporatzen die zentro horiei. Sendavivan eta Miarrizko Itsas Museoa ikuskizunak egiten dituzte fokekin eta hegaztiekin, hurrenez hurren. Hau ikusi zuten ikerketan aritu direnek: «Animaliak erabiltzen dituzten langileek hainbat minutu hartzen dituzte, hasi aurretik, azaltzeko bisitariari animaliek ez dutela sufritzen, eta haien hobe beharrez ari direla, betiere». Foken kasuan, otordua ikuskizun bihurtzen dutela salatu dute: janaria lortzeko, txilibituaren seinaleari jarraikiz langileak agintzen diena egin behar dute.


«Saltzen dituzte animaliak



zaintzeko zentro bezala, baina enpresak dira. Erdian ez dago animalien zaintza, etekin ekonomikoa baizik, bisitariari entretenimendu on bat ematea berrituz itzuli eta sarrera ordaindu dezaitez», salatu du Saguesek. Etekin ekonomikoa animalien ongizateari gailentzen zaiola uste du ekin-tzaileak. Ikusi dute espazioak mugatzen dituztela bisitariak animaliak ongi ikusteko. «Lortu behar dute ikusleak, aurretik pa-

satzean, argazki on bat egitea, eta, posible bada, gertutik».

Konfinaturik dituzte animaliak, eta horrek kalte handiak sortzen dizkiela salatu du Nor taldeak. Zookosiak jotako animaliak aurkitu dituzte bisitatu dituzten zentroetan; hau da, konfinamenduak eragindako psikosiarekin. Horren ondorioz, estereotipiak garatzen dituzte: helbururik gabeko mugimendu zehatzak errepikatzen dituzte behin eta berriz.



- 1 **Kristalaren atzean.** Lemur bat Sendaviva parkeko kaiolan; Nor taldeak dio animaliak erakusleiho baizik ez direla. NOR
- 2 **Bazkaria entretenimendu.** Miarrizko Itsas Museoa foken otorduak ikuskizun bihurtzen dituzte. Haien elikadura baliatzen dute ikusleen gozamenerako. NOR
- 3 **Ezin hegan egin.** Sendavivan hegaztien ikuskizunak egiten dituzte. Irudian, arrano beltz bat, lotuta. INIGO URIZ / FOKU
- 4 **Konfinamendua.** Orangutan bat Santillana del Mar ko zoologikoan (Espainia), zuhaitzez zuhaitz ibiltzerik ez duen kaiolan. NOR
- 5 **Postal baten bila.** Zoologikoak eta akuarioak animaliak erraz ikusteko eta argazkia egiteko diseinatuturik daude. NOR

la zentro guzietan ikusi dute hori: «Donostiako Aquariumeko marrazoen eta Sendavivako hartz arreen kasuak dira nabarmenak, bertzeak bertze», azaldu dute ikerketan. Karpingo hartzek ere garatu dituzte estereotipiari Nor taldearen arabera.

Konfinamenduaren gaitzak
Maidier Perez de Villarreal baitaritzan doktorea da eta etologian aditua. Bere ibilbide profesionale-

an halakoak ikusi izan dituela azaldu du: «Estereotipia zookoziaren manifestazio bat da. Oso konfinatuta badaude, portaera negatibo hauek garatzen dituzte animaliek: mugimendu errepikakor eta obsesiboak». Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan zitutzen jokabide obsesibo konpulsiboekin. «Gizakien tratamenduetan aritzen ginen: antidespresiboekin».

Bertatik bertara ikusi zituen halako jokabideak Doñan (Espainia), iberiar katamotzekin lanean. «Kanpotik etortzen ziren katamotzak habitat natural batera egokituta zeuden; beraz, konfinatuta egon ondoren, *spacing* egiten zuten: inguru batean mugitzea beste ezer egin gabe. Ez zuten janaririk bilatzen ere». Amek arazoak izaten zituzten beren kumeak hezteko. Konfinamenduaren eraginak zoetan ez ezik haz-

tegiaren ere ikusi daitezkeela azaldu du Perez de Villarreal. Itxialdiak zenbait eragin izan ditzake: kaudofagia –bestearen buztana jatea–, koprofagia –kaka jatea–, *spacing*-a, mugimendu errepikakorrak... «Konfinatuta daudenean ezin dute haien portaera naturalen arabera jokatu, eta horrek oso eragin negatiboa du haiengan: beste portaera batzuk garatzen dituzte antsietatea nolabait murrizteko».

Nor-en ikerketaren arabera euskal zoologiko eta akuarioak EAZA, AIZA, WAZA, EUAC edo UCA elkarteetako bazkide dira, «esplotazio zentro hauen interesak defendatzen dituzten lobbyak». Saguesek aipatu du ikerketako zentro guzietan diru publikoaren bidez egiten dutela aurrera. «Getxokoa adibide garbia da: Bizkaiko Diputazioak diru sarrera kendu zienean, itxi behar izan zuten». Sendavivaren kasua ere azaldu dute: Sodena enpresa publikoaren bidez parte hartu du Nafarroako Gobernuak han. Kontuen Gamberak gogor kritikatu izan ditu han egindako inbertsioak. Azken hamazazpi urteetan 70 milioi euro inguru jaso ditu Parquenasak gobernuren eskuatik. Bideragarritasuna lortzeko 257.000 bisitari beharko litzuzke; 2017an 183.000 izan zituen.

Egoera hori ikusirik, Saguesek argi du: «Horrelako zentroek ez dute existitzeko inolako justifikaziorik, beraien argudio guztiak faltsuak direlako eta ez direlako oinarritzen animalien ongizatean. Beraien zaintza erdigunean jarri beharko genuke babeslekuegan egiten den bezala». Beraz, gonbita egin die euskal herritarrei: «Ez joan zentro hauetara».